



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko martxoaren 22a

36. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Nafarroako Nekazaritzako Elikagaien Plan Osagarria betetzeko bideratutako funtsei buruzkoa. Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak egin du (3. or.).
- Galdera, aholkulariek enpresen gizarte erantzukizunaren esparruan bete beharreko eginkizunari buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (4. or.).
- Galdera, kriptodirua bidezko eragiketei buruzkoa. Ainhoa Unzu Garate andreak egin du (5. or.).
- Galdera, desgaitasunari buruzko Foru Legea berriari buruzkoa. Nuria Medina Santos andreak egin du (5. or.).
- Galdera, legegintzaldi honetan egin den osasun-kudeaketaren emaitzei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (6. or.).
- Galdera, Next Generation funtsen kudeaketari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, Foruzaingoko bi sindikatuk Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariaren dimisioa eskatzeari buruzkoa. José Suárez Benito jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, lizitazio publikoa ekidite aldera fakturak zatikatzeari buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, funtzio publikoan sartzeko atzerriko hizkuntzaren betekizuna eskatzea, irakasleen kidego berri bat sortuta, ahalbidetuko duen foru lege bati buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (8. or.).
- Galdera, koadro makroekonomikoaren aldaketari buruzkoa. María Jesús Valdemoros Erro andreak egin du (8. or.).
- Galdera, Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren eta Foruzaingoaren elkar lanari buruzkoa. Nuria Medina Santos andreak egin du (9. or.).
- Galdera, Kulturaren aurrekontuaren % 1,5 lortzeko konpromisioa betetzei buruzkoa. Alberto Bonilla Zafra jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, Ukrainatik datozenendako harrerari buruzkoa. Ainhoa Aznárez Igarza andreak egin du (10. or.).
- Galdera, jakiteko krisiaren egoera honen irtenbideak beharpen fiskal orokorra beharko ote lukeen. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (10. or.).

- Galdera, kanpalekuetan babestutako milaka sahararren egoera kontuan izanda hartu beharreko neurriei buruzkoa, Sánchez Gobernuak Mendebaldeko Sahararen gaian egindako biraketaren ondoren. Uxue Barcos Berruezo andreak egin du (11. or.).
- Galdera, irakasleen lanaldiaren murrizketari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (11. or.).
- Galdera, ibilgailu elektriko eta konektatua garatzeko Suspertze eta Eraldatze Ekonomikorako Proiektu Estrategikoaren deialdiari buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, prezioen igoerak sortutako egoera larriari erantzute aldera hartu beharreko neurriei buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, etxebizitza sozialaren parke publikoa sustatzeko Estatuak emandako funtsei buruzkoa. Osoko Bilkuran izapidetzea (13. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuak gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundaziorako (Gizain Fundazioa) izendatu beharreko patronatukide bat hautatzea. Hautagitzak aurkezteko epearen luzapena (14. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Nekazaritzako Elikagaien Plan Osagarria betetzeko bideratutako funtsei buruzkoa.*ANTONIO JAVIER LECUMBERRI URABAYEN JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Nekazaritzako Elikagaien Plan Osagarria betetzeko bideratutako funtsei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier Lecumberri Uraba-

yen jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Politikarako Kontseiluak Nekazaritzako Elikagaien Plan Osagarria onetsi zuen. Nafarroa izanen da plan horren gidari, funts guztien % 40arekin. Planaren helburua da eraldatze digital eta jasangarria bultzatzea sektorean, sorturiko ezagutza enpresetarako berrikuntza teknologiko bihur dadin eta, hala, lehiakorragoak izan daitezzen.

Nola garatuko ditu zure departamentuak Nekazaritzako Elikagaien Plan Osagarria betetzera bideratutako funtsak?

Iruñean, 2022ko martxoaren 15ean

Foru parlamentaria: Javier Lecumberri Urabayen

Galdera, aholkulariek enpresen gizarte erantzukizunaren esparruan bete beharreko eginkizunari buruzkoa.

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztutako galdera, aholkulariek enpresen gizarte erantzukizunaren esparruan bete beharreko eginkizunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iragan otsailean, Nafarroako Gobernuak Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiektzioaren eta Lanaren zuzendari nagusiak ebazpen bat eman zuen argitara, zeinaren bidez epe bat irekitzen baitzen aholkularien egiaztigiri-eskaerentarako, enpresa eta entitate publikoetan gizarte erantzukizuna ezartzeko “InnovaRSE” metodologiaren bidez.

Nafarroako Gobernuak gizarte erantzukizuna sustatzen du eta horretarako pizgarriak ematen ditu, eta xede horrekin laguntzen deialdia egiten du, enpresek gizarte erantzukizuna beren enpresa-estrategietan txerta dezaten. Hala, 2022ko ekitaldian, aurreko urteetan bezalatsu, “Gizarte erantzukizuna sustatzeko programa” izeneko partida gaitu zen, 100.000,00 eurekin.

Hori dela-eta, egiaztigiriak eskatzeko epe bat ireki zen, laguntzak eskatzen dituzten enpresei InnovaRSE, TAMIRSE eta GobernaRSE metodologietan diruz lagungarriak diren jarduketak gauzatzeko aholkulari-egiaztigiria duten pertsonen kontaktuak helarazteko.

Horrenbestez, gizarte erantzukizunak enpresen esparruan duen eginkizuna funtsezkoa da jada eta areagotzen ari da.

Hori dela-eta, galdera hau egiten diogu Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariari, ahoz erantzun dezan:

Zer eginkizun izan behar dute aholkulariek enpresen gizarte erantzukizunaren esparruan?

Iruñean, 2022ko martxoaren 16an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

Galdera, kriptodirua bidezko eragiketei buruzkoa.

AINHOA UNZU GARATE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea kriptodirua bidezko eragiketei buruz Ainhoa Unzu Garate andreak aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Garate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Enpresek eta pertsona fisikoek kriptodiruareriko duten interesak gora egin du. Hori horrela:

Zer jarduketa-esparru du Nafarroako Gobernuak kriptodiruari buruzko eragiketei dagokionez?

Iruñean, 2022ko martxoaren 17an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Gárate

Galdera, desgaitasunari buruzko Foru Legea berriari buruzkoa.

NURIA MEDINA SANTOS ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nuria Medina Santos andreak aurkeztutako galdera, desgaitasunari buruzko Foru Legea berriari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Nuria Medina Santos andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Eskubide Sozialetako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Zer urrats egin ditu Eskubide Sozialetako Departamentuak Desgaitasunari buruzko Foru Lege berri bat taxutzeko?

Iruñean, 2022ko martxoaren 17an

Foru parlamentaria: Nuria Medina Santos

Galdera, legegintzaldi honetan egin den osasun-kudeaketaren emaitzei buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztutako galdera, legegintzaldi honetan egin den osasun-kudeaketaren emaitzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gobernuako lehendakariak zer balorazio egiten du legegintzaldi honetan egin den osasun-kudeaketaren emaitzei buruz?

Iruñean, 2022ko martxoaren 17an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, Next Generation funtsen kudeaketari buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Next Generation funtsen kudeaketari buruz Jorge Esparza Garrido jaunak aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer iritzi du lehendakariak berak zuzentzen duen exekutiboak gure erkidegoan Next Generation funtsak kudeatzeko duen gobernantza-mailari buruz?

Iruñean, 2022ko martxoaren 17an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

Galdera, Foruzaingoko bi sindikatuk Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariaren dimisioa eskatzeari buruzkoa.

JOSÉ SUÁREZ BENITO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Suárez Benito jaunak aurkeztutako galdera, Foruzaingoko bi sindikatuk Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariaren dimisioa eskatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen José Suárez Benito jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Foruzaingoan ordezkaritza handiena duten bi sindikatuek lehen lehendakariorde eta Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariaren dimisioa eskatu dute. Zer iritzi du Nafarroako Gobernuko lehendakariak horren inguruan?

Iruñean, 2022ko martxoaren 17an

Foru parlamentaria: José Suárez Benito

Galdera, lizitazio publikoa ekidite aldera fakturak zatikatzeari buruzkoa.

JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea lizitazio publikoa ekidite aldera fakturak zatikatzeari buruz Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak honako galdera hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zure ustez lizitazio publikoa ekidite aldera fakturak zatikatzea, Aralarko pista egiteko lanen enkarguarekin gertaturiko moduan, jardunbide zuzena al da obren kontratazioaren arloko legez-kotasunaren eta lehia publikoaren errespetuari dagokionez?

Iruñean, 2022ko martxoaren 17an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, funtzio publikoan sartzeko atzerriko hizkuntzaren betekizuna eskatzea, irakasleen kidego berri bat sortuta, ahalbidetuko duen foru lege bati buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, funtzio publikoan sartzeko atzerriko hizkuntzaren betekizuna eskatzea, irakasleen kidego berri bat sortuta, ahalbidetuko duen foru lege bati buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren eledun Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Hezkuntzako kontseilari Carlos Gimeno Gurpegui jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Hezkuntza Departamentuak zer planteamendu helarazi zien sindikatuei duela egun batzuk, funtzio publikoan sartzeko atzerriko hizkuntzaren betekizuna eskatzea, irakasleen kidego berri bat sortuta, ahalbidetuko duen foru lege bati buruz?

Iruñean, 2022ko martxoaren 17an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, koadro makroekonomikoaren aldaketari buruzkoa.

MARÍA JESÚS VALDEMOROS ERRO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea koadro makroekonomikoaren aldaketari buruz María Jesús Valdemoros Erro andreak aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ros Erro andreak honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Errusiak Ukraina inbaditu izanak larriagotu egin du jadanik pairatzen ari ginen prezioen igoera eta inpaktu nabarmena sorrarazten ari da alderdi ekonomiko eta sozialetan.

Gobernuak aurreikusi al du aurrekontuak prestatzeko oinarri den koadro makroekonomikoa aldatzea eta aurrekontuak egoera berrira egokitztea?

Iruñean, 2022ko martxoaren 17an.

Foru parlamentaria: María Jesús Valdemoros Erro

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari María Jesús Valdemoros Erro andreak aurkeztutako galdera.

Galdera, Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren eta Foruzaingoaren elkar lanari buruzkoa.

NURIA MEDINA SANTOS ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nuria Medina Santos andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren eta Foruzaingoaren elkar lanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Nuria Medina Santos andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Lehendakariatzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer balorazio egiten du Nafarroako Gobernuak Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren eta Foruzaingoaren elkar lanari buruz, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeendako prebentzio, arreta eta babesaren arloan?

Iruñean, 2022ko martxoaren 17an

Foru parlamentaria: Nuria Medina Santos

Galdera, Kulturen aurrekontuaren % 1,5 lortzeko konpromisoa betetzeari buruzkoa.

ALBERTO BONILLA ZAFRA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkeztutako galdera, Kulturen aurrekontuaren % 1,5 lortzeko konpromisoa betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Alberto Bonilla Zafra jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer neurri eta ekintza egiten ditu Nafarroako Gobernuak oraingo unetik legegintzaldia amaitu arte, Kulturen aurrekontuaren % 1,5 lortzeko konpromisoa betetzeko, bere programa akordioan agertzen zen bezala?

Iruñean, 2022ko martxoaren 17an

Foru parlamentaria: Alberto Bonilla Zafra

Galdera, Ukrainatik datozenendako harrerari buruzkoa.

AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ukrainatik datozenendako harrerari buruz Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ainhoa Aznárez Igarza andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak Legebiltzarraren hurrengo Osoko Bilkuran, martxoaren 24an, ahoz erantzun dezan:

Zein dira Nafarroaren erronkak Ukrainatik datozen pertsonak hartzerakoan?

Iruñean, 2022ko martxoaren 17an

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, jakiteko krisiaren egoera honen irtenbideak beharpen fiskal orokorra beharko ote lukeen.

LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko krisiaren egoera honen irtenbideak beharpen fiskal orokorra beharko ote lukeen.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehendakari María Chivite Navascuésék Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Hilabeteetan zehar pairatzen ari ginen energia-krisia areagotu egin da Ukrainako gerrarekin, alarma sozial handia eta shock garrantzitsua eraginez etxebizitza askotako jarduera ekonomikoari et aurrekontuei begira.

Testuinguru horretan, Gobernuak uste al du salbuespenezko egoera horren irtenbideak beharpen fiskal orokorra beharko lukeela?

Iruñean, 2022ko martxoaren 21ean

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagastik,

Galdera, kanpalekuetan babestutako milaka sahararren egoera kontuan izanda hartu beharreko neurriei buruzkoa, Sánchez Gobernuak Mendebaldeko Sahararen gaian egindako biraketaren ondoren.

UXUE BARCOS BERRUEZO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Uxue Barcos Berruezo andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, kanpalekuetan babestutako milaka sahararren egoera kontuan izanda hartu beharreko neurriei buruzkoa, Sánchez Gobernuak Mendebaldeko Sahararen gaian egindako biraketaren ondoren.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioaren eledun Uxue Barkos Berruezo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaur-

kotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak heldu den martxoaren 24ko Legebiltzarren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Joan den ostiralean Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoak dei bat egin zuen Sánchez Gobernuak Mendebaldeko Sahararen gaian egindako biraketa zuzentze aldera. Biraketa horrek, ordu gutxiren buruan, Aljeriarekiko krisi batera eraman gaitu eta estatu mailako tentsio politikoa-
ren gorakada batera.

Beste edozeren gainetik, kezkgarria da kanpalekuetan babestutako milaka sahararren egoera, zeinek ikusten duten lau hamarkadetako ziurgabetasuna larriagotzen zaiela. Eta bereziki kezkgarria hemen, Nafarroan, gure gizartea beti erakutsi duelako sahararekiko elkartasuna.

Horregatik, lehendakariari galdetzen diogu zer neurri aurreikusten duen horri dagokionez ditugun eskumenen esparruan.

Iruñean, 2022ko martxoaren 21ean

Foru parlamentaria: Uxue Barkos Berruezo

Galdera, irakasleen lanaldiaren murrizketari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, irakasleen lanaldiaren murrizketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak Lehendakari-
tzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak 2022ko martxoaren 24rako, ostegunarekin, aurreikusitako kontrolerako Osoko Bilkuran, ahoz erantzun dezan:

27/2011 Foru Dekretuak Nafarroako adminis-
trazio publikoetako langileen lanaldiaren murrizke-
ta arautzen du.

Oro har, salbu eta Hezkuntza Departamentua-
ren menpeko irakasleak, funtzionarioek lanaldi

osoetan metatu ahal dituzte beren lanaldi murrizketak, familia eta lana bateratzen laguntzeko.

Batez ere maistra edo bigarren hezkuntzako irakasle diren emakumeak dira, lanaldi murrizketak gainerako funtzionarioen baldintza beretan baliatu ezin dituztenak.

Berriki, CCOO sindikatuak premiatzen gintuen egoera hori zuzentzera, aipatu foru dekretuaren 8.4 artikulua aldatuz.

Gobernuak eskari hori ezagutzen al du? Aurreikusi al du behar den arau aldaketa egitea, Hezkuntza Departamentuko irakasle funtzionarioek aukera izan dezaten lanaldi murrizketak lanaldi osoetan metatzeko?

Iruñean, 2022ko martxoaren 21ean

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, ibilgailu elektriko eta konektatua garatzeko Suspertze eta Eraldatze Ekonomikorako Proiektu Estrategikoaren deialdiari buruzkoa.

RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, ibilgailu elektriko eta konektatua garatzeko Suspertze eta Eraldatze Ekonomikorako Proiektu Estrategikoaren deialdiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak 2022ko martxoaren 24ko Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Zer suposatzen du Nafarroaren etorkizunerako ibilgailu elektriko eta konektatua garatzeko Suspertze eta Eraldatze Ekonomikorako Proiektu Estrategikoaren deialdiak?

Iruñean, 2022ko martxoaren 21ean

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

Galdera, prezioen igoerak sortutako egoera larriari erantzute aldera hartu beharreko neurriei buruzkoa.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera, prezioen igoerak sortutako egoera larriari erantzute aldera hartu beharreko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen José Javier Esparza Abaurrea jaunak gaurkotasan handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer neurri hartuko du Nafarroako Gobernuak eta noiz, Nafarroako familiak eta sektore ekonomikoak —horien artean garraioa, nekazaritza, abeltzaintza eta industria— prezioen igoera dela-eta pairatzen ari diren egoera larriari erantzuteko?

Galdera, etxebizitza sozialaren parke publikoa sustatzeko Estatuak emandako funtsei buruzkoa.

OSOKO BILKURAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak aurkezturiko galdera, etxebizitza sozialaren parke publikoa sustatzeko Estatuak emandako funtsei buruzkoa, Osoko Bilkuran izapidetu

dadin. Galdera 2022ko martxoaren 18ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-22/POR-00116).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuak gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundaziorako (Gizain Fundazioa) izendatu beharreko patronatukide bat hautatzea.

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 21ean eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 37.1.bederatzigarrena artikularekin bat, hona erabakia:

1. Gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundaziorako (Gizain Fundazioa) patrona-

tukide bat hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea **2022ko martxoaren 31ko 17:30ak arte** luzatzea. (10-22/ELC-00002).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2022ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias
